

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5488

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, 2014. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra– Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen eremu guztietan. Ildo horretan, Emakunde da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan emakume eta gizonen berdintasun-politika bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzen duen erakundea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3.i) artikuluan, erakunde horri izendatzen zaio jarduera-eremu guztietan egin beharreko politika taiutzeko azterlanak egin daitezen bereziki sustatzea.

Beka-modalitatearen bidez, deialdi honen bidez, bi alderdi batu nahi dira: batetik, azterlanak egin daitezen sustatzeko eta horien ganean herritarrak sentibilizatzeko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dituen egitekoak, eta bestetik, ikerlanak egin behar dituzten pertsonen trebakuntza. Izan ere, gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna lortuko badugu, aztertu egin behar dugu zer genero-harreman eta -rol dauden gaur egun emakumeen eta gizonen artean arlo guztietan ageri diren ezberdintasunen oinarrian, eta abian jarri diren edo jarriko diren ekimenek emakumeengan eta gizonengan nola eragiten duten edo nola eragin dezaketen. Azterlan horiek garatu eta zabaltzea funtsezkoa da eztabaida publikorako eta erabaki politikoak hartzeko, are gehiago genero-ikuspegia politika guztietan txertatu nahi badugu. Politikak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenen artean lan horiek hedatzea onuragarria da, ezin da ukatu. Izan ere, lan horretarako, eskura eduki behar dituzte tresna jakin batzuk, hain justu ere, generoari buruzko alderdiei ekiteko, alderdi horiek aztertzeko eta berdintasunerantz aurrerapausoak emateko neurriak proposatzeko beharrezkoak direnak; hala baieztatzen du Europako Kontseiluan sortutako «mainstreaming» delakoaren aditu-taldeak. Orobat, beka-modalitatearen bidezko sustapen-jarduerak onuradunen ibilbide profesionala eta prestakuntza garatzea ahalbidetzen du.

Aurrekoagatik, deialdi honetarako, erakunde honen iritziz egoki da aurreko ekitaldi bietan hasitako ildoarekin jarraitzea. Haietan, beken bitartez ikerlan batzuk egitea arautu zen, orain arte behar bezala ekin gabeko eremuetan ikertzea batez ere. Bekak beste laguntza mota bat bezala taxutu dira, eta ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen eremuetan, deialdi mota horiei dagozkien araudia eta ezaugarriak aplikatuko zaizkie, oro har. Bekak lehiaketa-prozeduraz esleituko dira, behar bezala barematutako esleipen-irizpideei jarraituz. Azkenik, beka emateak inoiz ez du kontratu, lan edo estatutu bidezko loturarik ezarriko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

Ekitaldi honetan ere hiru beka mota daude, mota bakoitzari ikerlan desberdin bat dagokiola. 1. eta 3. beken helburua da bekadun izango direnak genero-harremanen testuinguruan agertzen ari diren ikerketa-gai eta -eremuetara bideratzea eta eremu horietan trebatzea sustatzea, eta gure gizartean balio-aldaketa bat gerta dadin laguntzea. Bestalde, 2. bekaren bidez, oso aitortua den

premia bati erantzungo zaio, hots, askotariko bereizkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen premiak aztertzen eta premia horiei erantzuten aurrera egiteko beharrari.

Bestalde, hautagaiak hautatzeko prozedurari eusten zaio, alegia: lehendabiziko hautaketa egingen da, eta ondoren elkarrizketa bat, hautaketa-prozedura egoki kudeatzeko egokitzat jotzen den hautagai-kopuru jakin batekin; balorazio-irizpide objektibo eta tasatu berberak erabiltzen dira bai lehenbiziko hautaketan, bai ondoko elkarrizketan.

Inguruabar hauek guztiak kontuan hartuta, deialdi honen bidez beka bakoitzean zehaztutako azterlan-eremuak dinamizatu nahi dira, eta kalitatezko ikerlanak egin daitezzen bermatu nahi da, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzen laguntzeko, hain zuzen ere.

Prozedurari dagokionez, izapide telematikoak egiteko aukera dago; prozedurako izapideak bide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin ditzakete hala nahi dutenek, alor honetan aplikatzeko den araudiaren arabera. Horretarako, izapide modu horrek eskatzen dituen egokitza-penak sartu dira ebazpenaren testuan. Horren haritik, honako hauek dira aplikatzekoak: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa, zeinek Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea garatzen baitu; eta apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean jasotako izapideak arindu egin dira deialdi honetan: organo kudeatzaileak automatikoki egiazta dezake diru-laguntza emateko eta ordaintzeko alderdi batzuek betetzeari buruzko ziurtapena, interesdunen erantzukizunpeko adierazpenen bidez.

Azkenik, deialdi honi gastu-espedienteen aldez aurreko izapideak egingo zaizkio, EAEko 2014ko Aurrekontu Orokorren kontura.

Horri jarraiki, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea hiru beka ematea da, 2014. urtean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egiteko.

2. artikulua.– Beka bakoitzaren edukia eta ezaugarriak.

1.– Beka-mota bakoitzaren edukia ikerketa-gai hauei buruzkoa izango da:

a) 1. motako beka: gizarteko eremu guztietan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea.

b) 2. motako beka: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean.

c) 3. motako beka: sistema patriarkalaren presentzia, eragina eta sistema horrek iraun dezan laguntzen duten gizarte-fenomenoak aztertzea.

2.– Beka eskatzen duten pertsonak edo taldeek beka-mota baterako baino gehiagorako proiektuak aurkez ditzakete.

3.– Beka emateak ez du kontratu, lan edo estatutupeko loturarik ezarriko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

3. artikulua.– Hautaketa eta diru-hornidura.

1.– Deialdi honetako beka-mota guztiak (3) lehiaketa-prozeduraz ebatziko dira. Ondorio horietarako, lehiaketa izango da bekak emateko prozedura, non aurkezten diren eskaerak alderatzen diren, eskaera horien arteko lehentasuna finkatzeko eta beka bakoitza balorazio-irizpideen arabera balioespenik onena lortu duten eskaerei soilik emateko.

2.– Aurreko artikuluan adierazitako helburuak betetzen laguntzeko diru-hornidura Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik hartuko da. Hirurogeita bederatzi mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi (69.999) eurokoa izango da; horietatik 46.666 euro 2014ko ordainketa-kredituei dagozkie, eta gainerakoa, 23.333 euro, 2015eko konpromiso-kredituei.

Laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedituentz aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko agindua).

4. artikulua.– Eskatzaileak.

1.– Bekak jaso ditzaketen pertsonak edo taldeak betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Ikerlana Euskal Autonomia Erkidegoan egitea.

b) Argitaratu beharreko ikerlana hizkera ez sexistaz idatzi behar da.

c) Aurrez beste erakunde publiko edo pribaturen baten beka berdina edo antzekorik jaso gabeak izatea.

2.– Eskaera egiten duten banakoak edo taldeak izaera bereko beka, diru-laguntza edo laguntzen esparruan itzulketa- edo zehapen-prozesuren batean sartuta badaude eta laguntzak esleitzen bazaizkie, itzulketa- edo zehapen-prozesua amaitu egin beharko da laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

3.– Baldin eta hainbat eskatzailek ikerlan bakarria aurkezten badute, horien titular-kide direnek euren arteko bat izendatu beharko dute Administrazioaren aurrean koordinatzaile eta ordezkari izan dadin.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, ereduaren arabera, guztia beteta eta hurrengo artikuluan adierazitako dokumentazioarekin batera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan (Manuel Iradier, 36, 01005), edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Eskabide-eredua euskadi.net-en egoitza elektronikoa honetan eskura daiteke: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/enpresak/

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri behar dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzan den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

2.– Halaber, interesdunek bide elektronikoak erabil ditzakete prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko. Eskabideak bide elektronikoz aurkezteko, euskadi.net-en egoitza elektroniko honetan sartu behar da: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/enpresak/

Interesdunek onartutako egiaztagiri elektroniko bat izan behar dute, prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz egin ahal izateko. https://www.euskadi.net/y22-izapide2/eu/contenidos/informacion/certificados_admitidos/eu_cert_ele/certificados_electronicos.html

Eskabidea aurkeztearen osteko izapideak bide elektronikoz egiteko helbidea: <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak>.

3.– Erabilitako izapideari buruzko zehaztapenak (aurrez aurrekoari nahiz elektronikoari buruzkoak) eskuragarri daude helbide elektroniko honetan: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/enpresak/

4.– Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bideak –aurrez aurrekoa edo elektronikoa– ez dakar prozeduraren hurrengo izapideetan bide hori erabili beharra.

5.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurki ditzakete, nahi duten eran. Interesdunek hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideak aurkezteko epea 2014ko otsailaren 10ean amaituko da.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta agiriak.

1.– Pertsonak edo taldeek eskabidea aurkeztu behar dute, non honako erantzukizunpeko adierazpen eta adostasun hauek jasoko diren:

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, izenpetzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiola debekurik ezarri zehapenak irauten duen aldiaren ebazpen honetan araututako beka eskatzeko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapenik edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela eskatu edo ez duela jaso ebazpen honetan araututako bekaren helburu bera duen diru-laguntza, laguntza, beka, diru-sarrera edo baliabiderik, beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik.

– Erantzukizunpeko adierazpena, beste erakunde publiko edo pribaturen baten beka berdina edo antzekorik ez duela jaso adierazteko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adierazteko, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako bete-kizunak konplitzen dituela adierazteko.

2.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Zein beka-motara aurkezten den, I. eranskinaren arabera. Ikerketa zenbait lagunen artean egitekoa bada, argiro zehaztu beharko da bakoitzak zein eginkizun eta zeregin izango dituen prozesuan eta nor izango den ikertzaile nagusia edo arduraduna.

– Taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpenak eta adostasunak, II. eranskinaren arabera, sinatzaileari buruz aurretiaz adierazitako modu berean.

– Ikerlanaren azalpen-memoria, III. eranskinaren arabera.

– Pertsona bakoitzeko, curriculum-eredua, IV. eranskinaren arabera.

– Igortzen diren dokumentuen zerrenda, V. eranskinaren arabera.

– «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Ez da bete beharko, eskatzailea Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda badago, non eta inprimakian aipatzen diren datuak aldatu ez diren. Ebazpen honen 6.1 artikulua azken atalean aipatzen den baimena ematen denean ere ez da bete beharko. Inprimaki hori eskuratzeko helbidea: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html.

3.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

4.– Interesdunak ez daukate obligaziorik Eusko Jaurlaritzaren esku dauden datu eta agiriak aurkezteko. Eskubide hori baliatzen dutenean, baimena ematen diote Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari datu edo dokumentu horiek dauden organoetatik eskuratzeko. Eskubide horretaz baliatu ahal izango da bitarteko elektronikoen bidez ere.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea

Bekarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 6. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela ohartarazten zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraikiz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

8. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Hautaketa batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde kide hauek osatuko dute batzorde hori:

Presidentea: idazkari nagusia.

Bokalak:

- Azterlan, Dokumentazio eta Plangintza Arloko arduraduna.
- Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.
- Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.

2.– Hautaketa Batzordeak gaien adituak diren pertsonen laguntza eta aholkularitza izan dezake.

3.– Hautaketa Batzordearen osamodua EHAAan argitaratuko da.

9. artikulua.– Hautagaitzak hautatzea eta balorazio-irizpideak.

1.– Hautaketa Batzordeak bereziki baloratuko ditu eskatzaileak edo taldeko kideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko bekaren gaiaren inguruko ikerlanak egiteko dituzten jakintzak, prestakuntza eta esperientzia, baita zehaztasun eta adierazpenerako gaitasuna, bekaren langaia jarduteko dituzten ahalbideak, eta ikerlan- proposamenaren ikuspegia ere. Horretarako, beka-mota bakoitza emateko, Hautaketa Batzordeak balorazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

A) Ikerlanaren kalitatea, oro har (70 puntu, gehienez).

a) Ikerlanaren esparru teorikoaren planteamendua (20 puntu, gehienez).

b) Ikerlana argia eta bideragarria izatea, egutegia eta metodologia barne (20 puntu, gehienez).

c) Ikerlanerako dedikazioa (20 puntu gehienez).

d) Berrikuntzak (10 puntu, gehienez).

B) Pertsonaren edo taldearen ibilbidea (20 puntu, gehienez).

Lana egiten duten banakoek edo taldeetako kideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza; bereziki, eskatutako bekaren ikerketa gaiari buruz dutena.

C) Ikerlanak euskaraz egitea (10 puntu gehienez).

2.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak atzera botako dira.

3.– Lehen aukeraketan hartutako hautagaiei deia egingo zaie elkarrizketa bat egiteko, beren proposamena azaldu eta defendatu ahal izateko. Hautaketa Batzordeak beka bakoitzaren lehengo hiru hautagaiei soilik egingo die elkarrizketa (puntuazioaren arabera), baina proiektua azaldu eta defendatzerakoan behar adinako kalitaterik ez badute, hurrengo hautagaiei egingo die elkarrizketa, dagokion hurrenkerari jarraituz.

4.– Elkarrizketan, pertsona eskatzaileak edo taldearen koordinazioa bere gain hartzen duenak, aurkeztutako memoria edo proposamena azaldu eta defendatuko du. Ikerlanaren emaitzen eta ikerlana burutzeko bideragarritasunaren arabera baloratuko da memoria edo proposamenaren kalitatea, artikulua honetako 1. paragrafoan ezarritako irizpideekin bat etorritik. Lehen hautaketa-aldian aukeratutako hautagaiek lortutako puntuazioa sendesteko edo ezesteko egingo da elkarrizketa. Batzordeak galderak egin ditzake azaldutakori buruz, bekaren xedeari buruz eta beketan baloratutako alderdiei buruz.

5.– Hautaketa Batzordeak, egindako balorazioaren arabera, esleipen-proposamena egingo du. Proposamenean jasoko dira beka-mota bakoitzerako hautatutako pertsonak edo taldea, ordeko eskabideen zerrenda –pertsona edo talde onuradun batek uko egiten duenerako–, eta kanpoan utzitako eskabideen zerrenda, kanpoan uzteko arrazoia adierazita. Beka-mota baterako edo gutzietarako, deialdia bete gabe uztea ere proposa dezake, baldin eta banako edo talde hautagairik ez baldin badago edo proposamena azaldu eta defendatzerakoan behar bezainbateko kalitatezko ikerlanik ez badago.

6.– Deialdi honetako hiru beketakoren bat eman gabe utziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bekaren diru-zenbatekoaz baliatzeko proposa dezake, eta diru-zenbatekoa beste beka bati ematea, hain zuzen ere, beste mota bien artean interesgarriena den bekari.

10. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasunak.

Deialdi honetan aurreikusitako beka bateraezinak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek helburu bererako eman dituen edo eman ditzakeen beste beka, diru-laguntza edo laguntza batzuekin.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hautaketa Batzordearen esleipen-proposamena Erakundeko zuzendariari helaraziko zaio. Zuzendariak ebazpen adierazia emango du, eta emandako eta ukatutako beka adieraziko ditu, eta, hala behar denean, deialdia bete gabe utzi dela adieraziko du. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie banako zein talde onuradunei, bide elektronikoz edo postaz. Emandako beken zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horretan banakoari edo taldeari ebazpenik jakinarazi ezean, bekaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

12. artikulua.– Jabetza intelektualaren eskubideak.

1.– Jabetza intelektualaren eskubideari buruzko arauen esparruan eta indarreko legedian jasotakoaren arabera erabiliko dira egindako lanak.

2.– Bereziki, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko ustiapen-eskubideak (erakunde honi lagatakoak), eta, orobat, ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak, hain justu ere, mugarik gabe eta egungo hizkuntza eta prozedura ororen bitartez erabili daitezkeenak, deialdi honetan jabetza intelektualari buruz aplikatu daitezkeen araudiaren arabera xedaezinak diren baldintzetara eta mugetara egokitu beharko dira.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren beken onuradunek –pertsonek nahiz taldeek– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte, eta bereziki, honako hauek:

a) Emandako beka onartu behar dute. Horrela, beka eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek –pertsonek nahiz taldeek– bekari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, beka onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Beka zertarako eman den, helburu horretarako erabili behar dute, eta gutxienez hiru hilean behin, horretarako jarritako egutegiaren arabera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri eman beharko diote Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari, oniritzia edo onespena jasotzeko.

c) Emandako beka-motarekin bat datorren ikerlana egin behar dute, euskaraz eta/edo gaztelaniaz.

d) Egindako lanen argitalpen eta publizitate orotan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso dutela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu

beharko da publizitate-euskarrian, parte-hartze mailaren arabera dagokion tamainan, kokalekuan eta ikuskeran, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin bat etorriz. Marka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean eska daiteke. Erakundearen logotipoa jarri beharko da bekaz lagundu den lanean.

e) Lagundutako ikerlanen kopia bat, euskarri informatikoan, Erakundeari eman beharko zaio. Lana behar bezala hedatuko da erakundeak –herritarrak sentsibilizatzen laguntzeko eta bekadunen etorkizuneko garapen profesionala sustatzeko eta laguntzeko– egokitzat jotzen dituen bide eta euskarrietan. Lanaren egileak beti aipatu behar dira eta erabat bete beharko da jabetza intelektualerako eskubidea arautzen duen araudia.

14. artikulua.– Bekaren iraupena eta ordainketa.

1.– Bekak hamar hilabete iraungo du, deialdiaren ebazpena jakinarazten den unetik aurrera.

2.– Beka bakoitza 23.333 eurokoa izango da, eta hiru zatitan ordainduko da: lehenengoa, ebatzi bezain laster; bigarrena, egindako ikerlanaren hiruhileroko lehen informazioa ontzat ematean; eta hirugarrena, bekaren helburu den azterlana jaso eta baloratutakoan.

3.– Beka hartu duen banakoak edo taldeak bekari uko egiten badio, galdu egingo ditu oinarri hauetan adierazitako eskubide guztiak.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

Beka emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

16. artikulua.– Itzulketa prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoari jarraituko zaio emandako beka itzultzeko. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio pertsona edo talde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio, egokitzat jotako alegazioak egiteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da beka jasotzeko esku-bidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

17. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago. Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko bakarrik erabiliko da fitxategi hau. Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko, Legearen arabera. Eskubide horietaz baliatzeko, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren arduradunari, hots, Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arloari: Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aurka egiteko, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaizokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean (ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera); bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean (ebazpena EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera).

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 3koa.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

2013ko abenduaren 18a, asteazkena



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eskabidea

IKERLANAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea * Titularra Ordezkarria**Datu pertsonalak****Titularra**

Izena *

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Sexua * Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

 Emakumea**Ordezkarria**

Izena / Erakundearen izena

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

 Emakumea**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *** Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

 Elektronikoa**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *** Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateraezintasun-adierazpena

Aitortzen dut:

- Ez naiz xede eta helburu bererako laguntzarik jasotzen ari (eta aurretik ere ez dut jaso) Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez daukat diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigor penal edo administratiborik.
- Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan lege-debekurik, beren-beregi sexu-diskriminaziotatik¹ lege-debekurik.
- Betetzen ditut laguntza hauek jasotzeko indarreko legediak ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

Nortasun-datuak

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

Datu pertsonalen babesa² (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: Emakunderen Pertsonen Erregistroa
- Non arautua: 2003ko uztailak 1eko ARAUA
- Titularra: Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer-ekin:

Manuel Iradier kalea, 36
01005 Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berariazko egiaztapenak egin.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

² Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL- xedatutakoa betez.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzan duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: **Nire kudeaketak** guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, **onartutako ziurtagiri elektronikoa** bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2013ko abenduaren 18a, asteazkena



I. ERANSKINA - BEKA-MOTA

1.- Beka-mota

(Jari X bat eskatu den beka-motan; hainbat beka eskatzen badira, eskabide bat bete beharko da beka bakoitzeko)

- BEKA 1: Gizarteko eremu guztietan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea.
- BEKA 2: Egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean.
- BEKA 3: Sistema patriarkalaren presentzia, eragina eta sistema horrek iraun dezan laguntzen duten gizarte-fenomenoak aztertzea.

2.- Eskabide-mota

(Jari X bat eskabide mota)

- Banako eskabidea
- Taldeko eskabidea

Taldeko eskabidea bada:

3.- Taldearen koordinazioa bere gain hartzen duenaren datuak

Abizenak	<input type="text"/>		
Izena	<input type="text"/>	NAN	<input type="text"/>
Helbidea	<input type="text"/>		
Udalerria	<input type="text"/>	Posta-kodea	<input type="text"/>
Probintzia	<input type="text"/>		
Mugikorra	<input type="text"/>	Telefonoa	<input type="text"/>
		Faxa	<input type="text"/>
Posta elektronikoa	<input type="text"/>		

4.- Taldea osatzen dutenen datuak

☒ 1. taldekidea

Abizenak Izena NAN Helbidea Udalerrria Código postal Probintzia Mugikorra Telefonoa Faxa Posta elektronikoa

Funtzioak

Pertsona bakoitzak prozesuan zehar izango dituen funtzioak eta egitekoak adierazi behar dira, eta argi zehaztu behar da ikertzaile nagusia den ala arduraduna den.

5.- Ikerlanari buruzko datuak

Izenburua:

Ikerlana zein hizkuntzatan egin behar den

(Jarri X bat hizkuntzan)

- Euskara
 Espainiera

Behean izenpetzen duen arduradunak edo koordinatzaileak hitz ematen du badakiela deialdi honen arauak zeintzuk diren, eta baimena ematen du, eskaera finantzatuz gero, eskaeran jasota dagoen edukia datu-baseetan erabiltzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren ondorioetarako.

_____ (e)n _____ (e)an

(Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo koordinatzailearen izenpea)

2013ko abenduaren 18a, asteazkena



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

II. ERANSKINA - TALDEKIDEEN ADIERAZPENAK

1. TALDEKIDEA

Abizenak

Izena NAN - LETRA

Erantzunkizunpeko adierazpenak

Bateraezintasun-adierazpena

Aitortzen dut:

- Ez naiz xede eta helburu bererako laguntzarik jasotzen ari (eta aurretik ere ez dut jaso) Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez daukat diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigor penal edo administratiborik.
- Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan lege-debekurik, beren-beregi sexu-diskriminaziotatik¹ lege-debekurik.
- Betetzen ditut laguntza hauek jasotzeko indarreko legediak ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

Adostasunak

Nortasun-datuak

- Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektroniko bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

_____ (e)n _____ (e)an

(Sinadura)

2013ko abenduaren 18a, asteazkena



III. ERANSKINA - MEMORIA

1.- Justifikazioa

Ikerlanaren justifikazioa: lana garrantzitsu eta interesgarri bilakatzen duten alderdiak adierazi behar dira bereziki, baita berrikuntzak ere:

2.- Helburuak

Ikerlanaren helburu zehatzen azalpena:

3.- Lan-metodologia eta -plangintza

Esparru teorikoa eta lan-hipotesiak egitea, eta aztertu beharreko aldagaiak edo dimentsioak definitzea, aurrez ikus daitezkeen aldiak eta emaitzak zehaztuta. Erabiliko den populazioa (edo unibertsoa) eta lagina mugatzea eta deskribatzea. Informazioa biltzeko eta emaitzak aztertze-koteknikak aurkeztea edo zerrendatzea. Egutegia egitea. Ikerlanari eskainitako denbora: Beka jaso dezakeen ikerlanari buruzko bibliografia:

_____ (e)n _____ (e)an

(Eskatzailearen edo koordinatzailearen sinadura)

2013ko abenduaren 18a, asteazkena

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IV. ERANSKINA - CURRICULUMA

Informazio pertsonala

Lehen Abizena:	_____	Bigarren Abizena:	_____
Izena:	_____		
Helbidea (kalea/plaza):	_____	Zk:	_____
Udalerría:	_____	P.K.:	<input type="text"/>
Telefona:	<input type="text"/>	Mugikorra:	<input type="text"/>
E-mail:	_____		
Nazionalitatea:	_____	Jaioteguna:	_____
Sexua:	<input type="radio"/> Gizonezkoa <input type="radio"/> Emakumezkoa		

Lan-esperientzia

Deskribatu, banan-banan, lanbide garrantzitsu bakoitza, berrietik hasita.

Hasiera-data:	_____	Amaiera-data:	_____
Lanbidea edo betetako kargua:	_____		
Eginkizunak eta ardura nagusienak:	<div style="border: 1px solid black; height: 50px; width: 100%;"></div>		
Enpresa edo enplegu-emailearen izena:	_____		
Enpresa edo enplegu-emailearen helbidea:	_____		
Enpresa edo sektore-mota:	_____		

Hezkuntza eta prestakuntza

Deskribatu, banan-banan, lanbide garrantzitsu bakoitza, berrietik hasita.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak:

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

Gaitasunak eta trebetasun pertsonalak**Hizkuntzak**

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza bat(zuk) - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idazkera
	Entzunezko ulermena	Irakurriaren ulermena	Ahozko interakzioa	Ahozko gaitasuna	

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatze trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun informatikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun artistikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gida-baimena:

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| <input type="checkbox"/> AM | <input type="checkbox"/> B | <input type="checkbox"/> C1 | <input type="checkbox"/> D1 | <input type="checkbox"/> E | <input type="checkbox"/> BTP |
| <input type="checkbox"/> A1 | <input type="checkbox"/> B + E | <input type="checkbox"/> C1 + E | <input type="checkbox"/> D1 + E | | |
| <input type="checkbox"/> A2 | | <input type="checkbox"/> C | <input type="checkbox"/> D | | |
| <input type="checkbox"/> A | | <input type="checkbox"/> C + E | <input type="checkbox"/> D + E | | |

Ibilbidea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza, eta, bereziki, eskatutako bekaren ikerketa-gaiari buruz dutena:

_____ (e)n _____ (e)an

(Sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculum nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>:

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio-taula hizkuntzetarako erreferentzia den Europako Esparru Komunaren sei mailako eskalan oinarritzen da (Europako Kontseiluak egina).

Taulak honako hiru maila hauek ditu:

- Oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- Erabiltzaile autonomoa (B1 eta B2 mailak);
- Erabiltzaile trebea (C1 eta C2 mailak);

Atzerriko hizkuntzan zure maila autoebalutzeko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko interakzioa, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Entzunezko ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiak edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiak diharduten telebista-edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzeneko, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Irakurriaren ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntan idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiak buruzko artikulua eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauuko literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulua espezializatuak edo literatura-lanak.

Ahozko interakzioa	A1	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeke, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarriketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrak egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarriketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,...).
	B2	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarriketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarteedo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarriketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Mintzamena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idazmena	A1	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zoriontzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen diegan garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzikoaren iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jarioz idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikuluko konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.

2013ko abenduaren 18a, asteazkena



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomikaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

V. ERANSKINA - AURKEZTEN DIREN AGIRIAK

	Aurkezten diren agiriak
<input type="checkbox"/>	Eskabidea
<input type="checkbox"/>	Beka-mota (I. Eranskina)
<input type="checkbox"/>	Taldekideen adierazpenak (II. Eranskina)
<input type="checkbox"/>	Ikerlanaren memoria (II. Eranskina)
<input type="checkbox"/>	Pertsona bakoitzaren curriculuma (IV. Eranskina)
<input type="checkbox"/>	Igortzen diren dokumentuak (V. Eranskina)

_____ (e)n _____ (e)an

(Eskatzailearen edo koordinatzailearen sinadura)